

Miren Barandiaran Contreras

2016tik nago ALDEEren Zuzendaritza Batzordean. Diruzaintza-lanak egin ditut denbora honetan guztian. Hemendik gutxira hasiko den legegintzaldi berrian ere Zuzendaritza Batzordean jarraitu nahi nuke, elkarrekin gure lanbideari egiten dion ekarpenean sinesten baitut.

Nire ibilbide profesionala ez zen informazioaren eta dokumentazioaren munduan hasi. Geografia eta Historian lizentziatu nintzen (Deustuko Unibertsitatea, 1997), eta lehen urteak ikerketa historikoaren esparruan eman nituen.

Artxibo eta liburutegi asko ezagutu nituen bidean eta oso gustukoa nuen haietara joatea. Hala, 2006an lanbidez aldatzea erabaki nuen. Formakuntza prozesu bati heldu nion orduan, informazio eta dokumentazioaren alorrean trebatzeko.



Artxibistikako praktikak egin nituen leku berdinean hasi nintzen lanean 2007an, Lazkaoko Beneditarren Bibliotekan, bertako bilduma eta artxiboen antolaketa eta deskribapen lanak egiteko. Gaur egun bertan jarraitzen dut, 2011tik Lazkaoko Beneditarren Fundazioa den honetan. Bertako arduraduna naiz, eta denetik egiten dut pixka bat.